


## BOTA BERTSOA



### HERRIA ETA ERAIKINAK

NEREA IBARZABAL

DOINUA: PASAIAKO PLAZATIK




ERAIKIN MODERNOAK,  
LEHENGO BASERRIAK  
HARRIZKO KALE ZAHARRAK,  
PASEO BERRIAK  
EDONON DAUDE LEKU  
ERAKARGARRIAK  
EZAGUTU DITZAGUN  
ELKARREN HERRIAK!

KIROLDEGIAN DANTZA,  
FUTBOLA, PATINA...  
MUSEOAN ASETZEN  
DUGU JAKIN-MINA  
ETA ESKOLA GURE  
TXOKOA, JAKINA!  
ERAIKIN BAKOITZAK DU  
BERE ZEREGINA.

PLAZAN ELKARTZEN GARA  
DOMEKA HELTZEAN  
EDO LURREZ ZIKINDU  
HERRI-BARATZEAN  
MIN HARTU NUENEAN  
BEHIN BEGI ERTZEAN  
ONDO ZAINDU NINDUTEN  
OSASUN-ETXEAN.



DENA EZ DA POLITA,  
HORI HALAXE DA  
AUTO GEHIEGI DABIL  
AURRERA ATZERA  
BELDURRIK GABE IRTEN  
NADIN JOLASTERA  
GLOBOAN JOAN NAHI DUT  
BATETIK BESTERA.



ARKITEKTOA BANINTZ,  
AGUR HORMIGOIA!  
KOLTXONETAZ EGINGO  
NUKE ESPALOIA  
TXIKLEZKO TEILATUAK,  
FLANEZKO FRONTOIA...  
ETA JOLASTOKIAN  
ZIRKU ERRALDOIA!

GASTEIZ, SARA, UHARTE,  
MENDEXA, BEASAIN...  
HAINBESTE AUZO, HERRI  
ETA HIRI APAIN  
NI HEMEN EGONGO NAIZ  
ZU ETORTZEKO ZAIN  
ZEUREAN ZER DAGOEN  
JAKIN NAHI DUT ORAIN!

